

"Hemeretzi ipuin"
Hans Christian Andersen
euskaratzaileak: Martxel Eguen Itzultzaile taldea
Ibaizabal, 1997

Pasa den hilabetean, Hans Christian Andersen idazlearen jaiotzaren urteurrena oroitzuz, Nazioarteko Haur Literaturaren Eguna ospatu zen mundu guztian. Bada gure artean argitaratua daukagu jada Ibaizabal argitaletxeko Literatura Unibertsalaren sailean H.C. Andersen. Egile danimarkarraren 19 narrazio bildurik ditugu *Hemeretzi ipuin* izenburuko liburu honetan.

Erruz idatzi zuen idazle eskandinaviarrak, baina haren emaitza ezagunena ipuinak ditugu. Guztira 156 idatzi zituen. XIX. mendeko haur-ipuin klasikoen egileen artean bi izen nabarmentzen dira: Grimm anaiak eta Andersen. Grimm anaiek tradizio germaniarreko herri-kontakizunak jaso zituzten. Andersen, aldiz, ez zen horietara mugatu, askatasun osoz jokatu zuen eta era askotako narrazioak idatzi zituen. Lan honen horietako hemeretzi ditugu hautatutak, jasoak guk irakurtzeko.

Zinez irakurtzekoa baita liburu hau. Andersenek, irudimenaren bidez, mundu liluragarri batera, fantasiaren erreinura garamatza orrialdeetan zehar. Liburu hau irakurtzea mundu magiko batera bidaiatzea da. Fantasiako istorio hauek irakurlea txunditu, liluratu egiten dute. Hemeretzi kontakizun hauen artean dago, jakina, seguraski idazle eskandinaviarraren sormen ospetsuena, *Ahatekume itsusia* deiturikoa, mundu osoko literaturzaleen artean ezaguna dena. Izan ere, hori bezalako lanen bidez bereganatua du Andersenek munduko literaturan duen izena eta lekua.

Hemeretzi ipuin honetan jada lehenengotik fantasia presente dago. Egia da istorioa alegia bat da, animaliak protagonista dituen istorioa eta bertan giza-jokaeraren kasu bat azaltzen da, hain zuzen esamesetan jarduteak dakartzan ondorioen ingurukoa.

Ondorengo istorioa, *Artzaintsa eta tximinia-garbitzailea* zoragarria da. Portzelanazko irudiek eta bestelakoek bizia hartzen dute eta haiekin osatzen da narrazioa. Andersenek bizia ematen die objektuei istorio honetan (eta baita liburuko beste gehiagotan ere, haren ezaugarrietako bat da) eta barreneraino iristen zaigun kontakizuna eskaintzen digu, hunkigarria, xarmagarria.

Istorio honetan osagai ezberdinak daude. Esate baterako, goian aipatutakoan bertan pertsonaia bat *Goijeneralazpikomandantesarjentu Ahuntzhanka* izenekoa da. Polita, ezta? Bada horrelako osagaien bidez idazle danimarkarrak irakurlea bereganatzea lortzen du, irakurle haur nahiz heldua. Izan ere, adinak ez dio axola, batak zein besteak, denak harrapatuko ditu liburu hau irakurtzen dutenean.

Hemeretzi lan hauek egilearen irudimen apartaren erakusgarri dira. Narraziootan egilearen antzerkiarekiko lilura islatzen da, baina batez ere fantasiarekikoa. Pasadizo politikak, hunkigarriak aurkezten dizkigu: zer pentsatzen duen orratz batek, sirenak nola bizi diren... Errealitateko gertaera xume bat magia bilakatzen du, loreak, haizeak mugitzen dituenean, elkarrekin komunikatzen direla adierazterakoan bezala. Irudimenaren bidez, aurkezten duen egoerari etekina ateratzen dio, emozioa lortzeko eta irakurlearen bihotzeraino heltzeko.

Idazle jeinuak harritu baino harrituago uzten gaitu istorioz istorio. Errelatoak maisuki kontatuak daude, bakoitzak behar duen kontaketa du. Horrela, hemen bildutakoek klasikoak egiten dituen xarma eta handitasuna dute.

Baneukan Hans Christian Andersen irakurtzeko gogoia. Haren lanaz zerbait banekien, baina ez neukan bere libururik irakurrita. Bada, irakurri ondoren txundituta gelditu naiz, liburu aparta baita hau, bizitzan irakurri dudan ederrenetakoa. Gainera, ezin hobeto euskaratua dago, Martxel Eguen izeneko itzultzaile talde baten eskutik.